

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 1,6 milioi euro ingurukoak dira Baztango eta Luzaideko azpiegituretan izandako kalteak

*Esparza kontseilaria izan da ingurua bisitatzen Morrás kontseilariarekin eta ministerioetako ordezkariekin eta, iragarri duenez, konponketak finantzatu eta pertsona fisiko eta juridikoentzako zerga-salbuespenak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak*

Miércoles, 09 de julio de 2014

Esparza kontseilaria izan da ingurua bisitatzen Morrás kontseilariarekin eta ministerioetako ordezkariekin eta, iragarri duenez, konponketak finantzatu eta pertsona fisiko eta juridikoentzako zerga-salbuespenak onetsiko ditu Nafarroako Gobernuak.

1,6 milioi euro inguruko kalteak kalkulatu ditu Nafarroako Gobernuak

Baztango eta Luzaideko azpiegituretan iragan ostiralean izan ziren eurite handien ondorioz. Toki Azpiegituren Planeko larrialdi-prozeduraren bidez konponduko dira kalteak eta pertsona fisiko eta juridikoentzako zerga-salbuespenak egingo dira erregistratutako kalteengatik.

Hala iragarri du gaur goizean Elizondon José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria. Kalteak jasan dituen ingurua ikustera joan da Javier Morrás Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariarekin. Luis Aguilera Barne Ministerioko idazkariordea eta Juan Díaz Cruz Herri Babeserako eta Larrialdietarako zuzendari nagusia izan dituzte ondoan bi kontseilariak. Baztanera joan dira uholdeek eragindako kalteak ebaluatzerara.

Hain zuzen ere, ezohiko laguntza eskatuko dio Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuari datorren asteazkeneko saioan (uztailak 16), herrigune eta saltokietako kalteak konpontzen laguntzeko dagoeneko eman diren laguntzen osagarri izan daitezen. Ministerioetako arduradunek adierazi dutenaren arabera, datozen egunetan baloratuko du gobernu zentralak aukera hori.

Gainera, Foru Gobernuak akordio bat onetsiko du, bi udalerrriak babestututa egon daitezen uholdeen, haizete indartsuen eta bestelako fenomeno naturalen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko urriaren 30eko 11/2009 foru-legeak jasotako



Elizondoko liburutegira egindako bisitaren unea; hainbat liburuk jasan dituzte kalteak han

kasuetan. Legeak pertsona fisiko eta juridikoentzako laguntzak jasotzen ditu; bi motakoak dira batez ere.

Alde batetik, zerga-salbuespenak daude, esate baterako, hirilurreko eta landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa eta zerga jakinak ordaintzeko orduan, baita zerga horiek jasotzeari uzten dioten tokiko erakundeentzako konpentsazioak ere. Beste alde batetik, lehentasunezko laguntzak emango dira azpiegiturek eta ekipamendu publikoek jasan dituzten kalteak konpontzeko.

### **1,6 milioi euro tokiko azpiegituretan**

Baztango eta Luzaideko tokiko azpiegiturak jasandako kalteak zenbatetsi dituzte Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko teknikariek. Bideetan eta hornidura- eta saneamendu-sareetan izandako kalteen konponketek 1,6 milioi euro inguruko aurrekontua izango dute. Toki Azpiegituren Planaren barruko larrialdi-prozeduraren bidez egingo dira obrak.

Baztani dagokionez, 13 konponketa egingo dira bide eta zubietan, eta guztira 981.099,43 euroko aurrekontua izango dute. Gainerakoak hornidura- eta saneamendu-sareetako hamabi konponketa izango dira.

Bestalde, 500.000 eurokoak izango dira gutxi gorabehera Luzaide inguruan eurite handiek harribetara eta bideetan eraqindako kalteak konpontzeko egin beharko diren lanak.



Agintariak presaren ondoan